

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure ustez behar ditugun elementu garrantzitsuak gure idea aurrera eramateko hauek dira: Gure baliabide fisikoak, balibide intelektualak, finantza- banatzaileak eta giza-baliabideak.

### BALIABIDE INTELEKTUALAK:

Webgunearen logoa eta gure enpresaren logoa berdina da, diseinua hasieratik guk sortutakoa da. Logoa patentatuko dugu.

Logoa kolore urdin eta zuriarekin egin dugu, hortz kliniketan egoten diren kolorerik bereizgarrienak direlako.

Logoaren erdian hagin bat eta honen barruan kliniketan erabiltzen den miaketa ispilu bat jarri dugu. Logo minimalista egin dugu, detaile gutxiagorekin bezeroen atenzioa azkarrago lortzen delako eta helburua azkarrago transmititzen delako argazkiz eta kolorez betetako logo batekin konparatuz. Gainera, era honetan jendeak hobeto gogoratu dezake logoa.



Logoa gurea dela bereizteko patentatu behar dugu pausu hauek jarraituz:

- Bideragarritasun-ikerketa: Erregistro-prozesua hasi baino lehen, funtsezkoa da patentatu nahi dugun logoa jada erabiltzen ari den edo antzeko markaren bat erregistratuta dagoen egiaztatzea. Hori jabetza intelektualeko eskubideen gatatzak saihesteko egiten da.
- Marka-mota identifikatzea: Markak mota desberdinetan banatzen dira, ordezkaten dituzten produktuen edo zerbitzuen izaeraren arabera. Identifikatu zein klasetan egokitzen den zure logoa.
- Erregistro-eskaera: Marka erregistratzeko eskaera aurkeztu behar duzu zure herrialdeko jabetza intelektualeko bulegoan. Prozesu hori leku bakoitzean aldatzen da, baina, oro har, formulario bat bete eta tarifa bat ordaindu behar izaten da.

- Azterketa eta berrikuspena: Eskaera aurkeztu ondoren, marken bulegoak azterketa bat egingo dugu logoak marka gisa erregistratzeko baldintzak betetzen dituen zehazteko. Kasu batzuetan, logoa benetan erabiltzen dela frogatu behar da.
- Argitalpena: Logoa azterketa pasatzen bada, argitaratu egingo da, hirugarrenek erregistroaren aurka egin dezaten, antzeko marka baten gaineko aurretiazko eskubideak dituztela uste badute.
- Erregistroaren jaulkipena: Aurkakotasunik ez badago edo eragozpenak ebazten badira, markaren erregistroa egiten da. Horrek logoaren gaineko eskubide eskusiboak emango dizkizu, eskubidean zehaztutako produktu edo zerbitzuei dagokienez.
- Mantentzea: Garrantzitsua da zure marka erregistratuta mantentzea, aldizkako berritze-tarifak ordainduta eta marka aktiboki erabilia, gal ez dadin.

Gainera Web-orri bat sortuko dugu bi atal edukiko ditu, alde batetik, pazienteak ikusiko duten atala galderak egiteko, Hagin pic (argazkiak egiteko aparatua) erosteko, argazkiak bidaltzeko... eta bestetik, profesionalak eskuragarri izango duten atala pazienteei erantzuteko...

**Web-orri** bat sortzeko hainbat gauza legal kontuan izan behar ditugu:

- Webgunearen titularra eta, hala badagokio, titularraren eragilea eta Datuak Babesteko Ordezkarria (DPO) identifikatzeko datuak
- Helburua
- Titularra legitimatzen duen oinarri juridikoa
- Nola kudeatzen diren datu pertsonalak
- Datuak gordetzeko epea
- Hirugarrenei datuak lagako zaizkien
- Cookieen erabilera
- ARSULIPO eskubideak baliatzeko bidea (bezeroei eta erabiltzaileei jakinarazi behar diegu nola balia ditzaketen sarbide-, zuzenketa-, ezabatze-, tratamenduaren mugatze-, eramangarritasun- eta aurkakotza-eskubideak), bai eta AEPDri erreklamatzeko aukera ere.
- Cookie-politika. Bertan, webguneko bisitarien webguneko cookie-en erabilerari buruzko informazio guztia ematen zaie, hala nola helburua, titulartasuna, iraupena, cookie motak eta abar.

Produktu bat salduko dugunez web-orri baten bitartez **web-orrian** honako gauzak agertuko dira:

- Produktuen prezioa eta dagozkion zergak barne hartzen dituen ala ez.
- Bidalketa-gastuak
- Ordaintzeko moduak

- Nola funtzionatzen duen erosteko edo kontratatzekeo prozesuak (bezeroen eta saltzaileen eskubideak eta betebeharrak barne)
- Saltzaileak bere gain hartutako erantzukizuna, webean gorabeherarik izanez gero, salmenta-prozesuan edo produktu bat bidaltzean.
- Bermeak
- Kontratua formalizatzeko hizkuntzak
- Itzulketen politika
- Saldu osteko zerbitzuaren baldintzak (hala badagokio)
- Atzera egiteko eskubidea
- Gatazkak, judizioz kanpokoak zein judizialak, ebazteko legeria aplikagarria eta modua
- Eskaintza eta sustapenekin lotutako klausulak

<https://onlinedent.mydurable.com/>

## **GIZA BALIABIDEAK**

Guk dauzkagun abileziak, ikasketak eta abar erabiliko ditugu. Kontuan hartu egin behar ditugu gure ikasketekin enpresa hau muntatu egin daiteke, baina egia da ere, beharrezkoa dela informatika ezagutza handiagoa izatea. Informatikako kurtsoak egin ahal ditugu (2 aste iraun).

Bestetik, leku bat dugunez taldeko guztiak elkarko, baita webgunea modifikatzeko eta berritzeko ere. Gure taldeko integrante batek bere etxea prestatuko digu eta finantzari dagokionez gure aurrezkiak ere jarriko ditugu. Gainera, kontuan hartuta enpresa bat montatzeko beharrezkoa da diru asko edukitzeak eta gastu asko edukiko ditugu ere. Gastuak murrizteko hasieran ez ditugu langileak edukiko.

## **FINANTZA BALIABIDEAK**

Guztion artean hainbat baliabide elkartu ditugu enpresa aurrera eraman ahal izateko. Guztion aurrezkiak elkartuta 12.000 euro lortu ditugu ( bakoitza 2000-3000 euro artean emateko prest gaude).

Gainera Euskal gobernuak ematen dituen laguntzak eskatuko ditugu.

Eusko Jaurlaritzak hainbat finantza-laguntza eskaintzen ditu gazteen ekintzailetzarako, gazte ekintzaileei beren enpresa-proiektuak garatzen eta abian jartzen laguntzeko. Hona hemen Euskal Autonomia Erkidegoan gazteen ekintzailetzarako eskuragarri egon daitezkeen finantza-laguntzetako batzuk:

### DIRULAGUNTZAK ETA MAILEGUAK

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak edo gazte ekintzaileak buru dituzten enpresak sortzen eta finkatzen laguntzeko baldintza egokiak dituzten maileguak eskaintzen dira. Funts horiek hasierako gastuak, inbertsioak, ekipamendua eta abar ordaintzeko erabil daitezke.

## MAILEGUAK ETA LAGUNTZAK

Gaztenpresa > EKITEA > MAILEGUAK ETA LAGUNTZAK



Azken fasean gaude. Zure ideia landuta dago, enpresa-plana prest eta hasierako inbertsioa kalkulatuta. Negozioa martxan jartzen jarraitu aurretik, gauzabxo bat neurtu behar dugu: **zure gaitasun finantzarioa.**

**-Hazi-kapitala:** startup eta gazteak buru dituzten proiektu berritzaileetarako hazi-kapitala ematen duten finantzaketa-programak. Funts horiek hazkunde-potentziala duten negozio-ideien garapena bultzatzera bideratuta egon ohi dira.

**-Mikrokredituak eta finantzaketa-lerroak:** Beren negozioak hasi edo hedatu nahi dituzten ekintzaile gazteei zuzendutako mikrokredituen edo finantzaketa-lerroen berariazko lerroak egon daitezke.

**-Zerga-pizgarriak:** Kasu batzuetan, pizgarri fiskalak edo zerga-murrizketak eskaintzen zaizkie enpresa gazteei, edo startupak ekintzailatza bultzatzeko neurri gisa.

Bestetik, Rifa (janari saski bat) bat antolatuko dugu. Guk ikasten dugun ikastetxeko ikasle eta irakasle guztiei Gmail baten bidez jakinaraziko diegu rifari buruz, baita kaleetan zehar kartelak jarriko ditugu horrela Gasteizko pertsona asko parte hartu ahal dute Rifan.

### ZOKETA/SORTEO

- 1.SARIA:** JANARI SASKIA
- 2.SARIA:** JANARI SASKIA
- 3.SARIA:** JANARI SASKIA
- 4.SARIA:** AHO EA HORTZEN HIGIENE KIT-A
- 5.SARIA:** AHO EA HORTZEN HIGIENE KIT-A

**Boleto bakoitza 3€**

## **BALIABIDE FISIKOAK**

Produktu ekoizteko lantegi bat alokatuko ditugu, Gasteizen lokal utzi bat dagoena gure materiala eta makinariak hor uzteko (3D-ko makinak dira). Gure webgunea berrizteko bai lokalean bai gure taldean dagoen partaide baten etxean ere egon ahal gara. Lokalean beharrezkoak izango diren mahailak eta ahulkiak eta abar, wallapop-ean edota utzitako baita emandako gauzak erabiliko ditugu, dirua aurreztuz.

Gure produktuak egiteko behar ditugu plastiko ekologikoa. Plastiko mota hau da plastiko berreralbigarria dena, eta oso merkea izango denez, bakarrik beharko ditugu plastiko hori egokituta egotea gure 3D-ko makinekin konpatiblea izatea.